

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Amuarrainaren eta izokinaren arrantza-denboraldia hasi da

Orain arte, 1.632 arrantzalek eskatu dute amuarraina arrantzatzeko 2.723 baimen

Lunes, 30 de abril de 2012

Astearte honetan, maiatzak 1, amuarraina eta izokinaren arrantza-denboraldia hadiko da [Goi Izokin Eskualdean](#) (Arakil-Larraun, Arga-Iltzama, Baztan-Bidasoa, Ega-Urederra, Eska-Salazar, Irati-Erro eta Oriá-Urumea ibaien arroak). Gainera, espezie horietan ere uzten da itsas amuarraina, kolaka, lazuna eta platuxa harapatzea ere.

Espezie horietako bakoitzak neurri zehatzak ditu arrantzatzeko, eta [2012ko arrantza-araudi](#)an jasotzen dira. Zehazki, izokina Bidasoa ibaiaren izokinatarako zatian arrantzatu ahal izango da (Berako Fundizioen presatik Gipuzkoarekin egiten duen mugaraino). Espezie horren denboraldia uztailaren 15a arte zabalik izango da edo 48. alea arrantzatzen den arte. Une horretan itxiko da ere itsas amuarraina, kolaka, lazuna eta platuxa arrantzatzeko denboraldia ere, eta arrantza hori izokinaren leku berean bakarrik egin daiteke.

Bestalde, amuarraina ekainaren 30a arte arrantzatu ahal izango da Goi Izokin Eskualdeari dagozkion zazpi arroetan. Arrantzale bakoitzak gehienez ere hiru ale hartu ahal izango ditu arrantza-eguneko, eta harrapatutako ale bakoitzaren tamaina gainean eraman beharko duen arrantza-txartelan zehaztu beharko du. Arrantzatu daitezkeen aleen gutxieneko tamaina 23 zentimetrokoa da ubide nagusietarako eta 20koa bigarren mailakoetarako. Gainera, 35 zentimetroak gainditzen dituzten aleak ibaira itzuliko dira.

Arrantza-baimenen % 10 eskatu da

Izokinak arrantzatzeko, arrantza-lizentzia indarrean izateaz gain, arrantzaleek Nafarroako Gobernuak amuarrainen zazpi arroetarako emandako 27.138 baimenetako bat izan beharko dute. Araudiaren arabera, arrantzale bakoitzak baimen horietako bost erabiltzeko eskubidea du, baldin eta aurrez eskatzen baditu

www.permisopesca.navarra.es webgunearen bidez edo 012 InfoNavarra telefonoan.

Baimenak bi txandatan banatzen ari dira. Lehenengoan (apirilaren 16tik maiatzaren 1a bitarte) bi baimen eskatu ahal izan dira. Datorren asteazkenenetik, maiatzaren 2tik, aurrera hiru baimen osagarri eskatu ahal izango dira, baldin eta horretarako aukera badago.

Araudiak dioenez, baimen horietako batek gutxienez lanegun baterako izan beharko du.

Orain arte, Nafarroan lizentzia duten 1.632 arrantzalek eskatu dituzte arrantzarako baimenak Goi Izokin Eskualdean. Arrantzarako sistema iraunkorrek 2.723 baimen eman ditu 20102 denboraldirako, kopuru guztiaren % 10. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren estatistiken arabera, % 60 Internet bidez eskatu dira eta, gainerakoa, telefonoz.